

# GOIZPAŔKIJA

*Joŕala-6'gkua. Nekausteko igandia.*

*Ziñez, ziñez dirautzubet: Abaŕan jayo baño lenago neu bai-nintzan.*

¿Zubetariko zeñek obena ezaŕi daisket? Egija ba-diñot ¿zegaŕik eztaustazube ziñesten?

Jaun-goikua'rena danak Jaun-goikua'ren itzak (berbak) entzuten dauz; beronegaŕik zubek eztozubez entzuten, Jaun-goikua'renak etzarielako.

Judaŕak, ba, erantzun eutsoen, esaten: ¿Etxuagu, ba, ondo esaten samaritaŕa ta gokaiztoduna (diabruduna) azala?

Josu'k erantzun eutsen: Ni enaz gokaiztoduna, bai, baña neure Aŕea goresten dot, eta zubek irainduten nozube.

Baña ni enabil neure aintzearen biŕa; bai-dago nok biŕatu ta aldeztuten daun.

Ziñez, ziñez dirautzubet: neure itza (berba) jabongo daunak eztau iñoz erijotza ikusiko.

Judaŕak esan eutsoen: orain, bai, ikusten yuagu gokaiztoduna azala. ¿Abaŕan eta iŕagaŕliak il zuazan, eta euk diñok: neure itza jabongo daunak eztau iñoz erijotza ikusiko?

¿Abaŕan geure aŕa zana baño beñagua ete-az-i? Iragaŕliak be il zuazan; nortzat daukok, ba, eure buruboi?

Josu'k erantzun eban: Neure buruba goraltzen ba-dot neure aintzea ezta ezer. Neure Aŕea da, bai, neu goralduten nauna, zuben Jaun-goikua dala diñozubena.

Eta zubek eztozube ezautzen, baña neuk, bai, ezautzen dot, eta ezautzen eztodala ba'niñua zubek lez guzuŕa esango neuke. Baña ezautzen dot eta bere itza jaboten dot.

Abaŕan zuben aŕea pozez bete zan neure eguna ikusteko; ikusi eban eta poztu zan.

Judaŕak orduban esan eutsoen: Beŕogetamaŕ urte eztaukazak eta ¿Abaŕan ikusi dok?

Josu'k esan eutsen: Ziñez, ziñez dirautzubet: Abaŕan jayo baño lenago neu bai-nintzan.

Orduban aŕijak aŕtu ebezan berari jauŕtiteko; baña Josu eskutau ta txadonetik uŕten zan.

OLA TA ITXASONTZIJETARAKO
ORIJO, TRESNA TA MARGOKI
INTXAUŔAGA'TAŔ P.
*BARAKALDO (Bilbao)* *5087 Uŕutizkiña*



# EUZKI-EGUNA

Atozkit, oldeŕti nerea,
atozkit alai abesten,
euzki-argitan izadia
ari zaizu bigun deitzen;
noski, adizkide zaitula
ez du beronek aiztutzen.

. . . . . . . . . . . . . .

Itxas-ertzean nagon geldi
onen urdiñai begira...,
ixil-ixil eta iya aiztuta
noiz eldu naizen bertara,
¡bai-da edeŕa oskarbitik
onek aŕtzen dun margoa,
nere au legez txoratzeko
aŕats-zale dan gogoa!

Noiz-nai aŕo dan itxasoa.
noiz-nai azaltzen da bare...
¡ai, ene Urtzi, gure biotzak
ontan bere antza dute!
¡gentzadun baña edeŕak dira
bat bezela besteare!

Jaunak atsegin demakit gauŕ
itxas-edeŕai begira,
baita poz garbi beŕdingea
begituaz legoŕera,
udabeŕia datoŕ alai
bazteŕ guziak edeŕtzen,
¿ez dezu, oldeŕti nerea,
izadiakin abesten?

Zuaitzak dikust osto-beŕiz
apain dirala jantzitzen,
zelai, muño, bizkaŕ guziak
margo oŕlegi bizia aŕtzen,
biŕi txuri ta belegiak
dena poliki estaltzen,
¿nola ez dezu edeŕtasun
aben Jabea goratzen?

¡Abestu, abestu zayozu,
abestu Egiŕiari
ludiyari bizitz beŕia
oŕla demayon Urtzi'ri!
¡Abestu, jopu au maitaro
atsegintzen naun Jaunari!

. . . . . . . . . . . . . .

Baňan... ¡ez, ez! ¡zaude zu ixilik!
¡etzera iñor une ontan!
¡Sutu bedi biotza bizi
Beraganako maitetzan,
oro-aldiyan donokiyan
gogoak aintzatu dezan!

TENE.